

Tirri Tarra fanfareak 25. urteurrena ospatuko du, begiak etorkizunean jarrita

Egoitza berria inauguratuko du bihar, eta diskoa kaleratuko du hilaren bukaeran

Jon Eskisabel / Pasai San Pedro

Joan den urrian bete arren, Pasai San Pedroko Tirri Tarra fanfareak bihartik aurrera ospatuko du bere 25. urtemuga. Fanfarean urteotan

izan diren 300 partaideak berriz bilduko dira hainbat ekitaldiren inguruan, eta hainbat istorio gogoratzeko parada izango dute. Begiak baina, etorkizunean jarrita ditu Tirri Tarrak. Izan ere, urtemugarekin bat eginez

egoitza berria inauguratuko du, eta hilaren bukaeran *Re + Fa* disko berria kaleratuko du. Beste proiektuen artean dago, halaber, kultur fundazio bat sortzea Tirri Tarrako zenbait partaide ohik.

1973-KO urrian sortu zen Tirri Tarra fanfarea Pasai San Pedron. Garai hartan ez ziren fanfare asko existitzen: Los Pomposos, Los Pasai, Irungo Atseginak, Politus Anastasios eta besteren bat akaso. Gehienbat Gipuzkoara mugaturiko fenomeno zen fanfareena. Tirri Tarra fanfarea berezia izan zen hasieratik, bi arrazoi nabarmenengatik: «Batetik, taldekideak beste fanfareetakoak baino askoz gazteagoak ziren, batazbesteko adina 18-19 urtekoa baitzen; bestetik, emakumeak fanfare batean sartu zituen lehena izan zen Tirri Tarra», azaldu zuen Amador Mayo fanfareko taldekide ohi eta 25. urtemugararen ospakizun batzordeko partaideak atzo.

Geroztik, fanfareen mundua gaurkotzeko grinak gidatu du Tirri Tarraren ibilbidea mundu osoan zehar. Fanfareetakoak ez ziren instrumentuak hartu ditu -gitarra elektrikoa, organoa, pianoa...- eta desfileak ahaztu gabe fanfareak ikuskizunarekin lotzea lortu du, antzerkia, musika eta koreografia nahasten dituzten azken muntaiekin: *Tirri Tarra Show* eta *Kass & Kass*, kasu.

Hogeitabost urteotan 300 pertsona inguru pasatu dira Tirri Tarratik. «Fanfarean



Joserra Isasa, Patxi Otxoa eta Amador Mayo, Tirri Tarra fanfareko belaunaldi guztietako ordezkariak.

bikoteak, seme-alabak eta familiak sortu dira», esan zuen Mayo. Belaunaldi aldaketak ia modu naturalean gertatu dira, hasierako izpiritu gazteari eutsiz. Gaur egun 30 musikarik osatzen du fanfarea, gehienak ikasleak.

Urtemugak bat egingo du bi gertakizun garrantzitsuekin Tirri Tarrantzat. Bate-

tik, egoitza berria inauguratuko du bihar. Untziak konpontzeko Proisa lantegi zaharrean dago, eta muntaiak prestatzeko eta beste ekintzak egiteko aukera handiak eskaintzen dizkio fanfareari.

Bestetik, hilaren bukaeran *Re + Fa* disko berria kaleratuko da, Tirri Tarraren bigarrena. Sergio Zurutuza fanferekideak konposatu ditu pieza

guztiak, eta oso orijinala izango dela azaldu zuten atzo.

Hor ez dira bukatzen Tirri Tarraren asmoak. Izan ere, kultur fundazio bat sortzeko proiektua dute zenbait kide ohik, musikarekin eta artearekin loturiko ekintzak bul-tzatzeke.

EOSk Jean Louis Esteuerman brasildarrarekin itxiko du denboraldia

■ Euskalduna Jauregian joko du estreinakoz hilaren 17an

Erredakzioa / Donostia

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK datorren astean eskainiko ditu denboraldiko azken kontzertuak Hegoaldeko lau hiriburuetan. Emanaldiotan Jean Louis Esteuerman piano jole brasildarrarekin ariko da EOS, eta Mario Venzago suitzarraren zuzendaritzapean.

Brasilen jaio arren, Europan oso bide distiratsua egin du Esteuermanek. Londresko Orkestra Sinfonikoarekin eta Royal Philharmonic Orkestrarekin jo du, Lord Menuhin eta Vladimir Ashkenazy zuzendarien agindura.

Hegoaldeko kontzertuetan Beethovenen *Piano eta orkestrarako 5. Kontzertua* joko du bakarlarri gisa. Ondoren, Beethovenen 4. *Sinfonia* joko du orkestrarekin, eta Ravelen *Rapsodia Española*-rekin amaituko dute saioa.

Hilaren 14an Iruñeko Gaiarre antzokian joko du EOSek; 15ean eta 16an Donostiako Victoria Eugenia antzokian -bertako azken saioak izango dira, Kursaalera joan aurretik-; hilaren 17an Bilboko Euskalduna jauregia estreinatuko du EOSek, eta 18an Gasteizko Principal antzokian izango da.

Tirri Tarrak Tirri Tarrari eginiko omenaldia

■ HOGEITASEIGARRREN urtemuga ate joka duela ekingo dio Tirri Tarra fanfareak 25. urtemuga ospatzeari bihartik aurrera. Kanpora begirako ospakizun handi bat egin beharrean, beren burua omendu nahi izan dute Tirri Tarrakoe, «belaunaldi ezberdinetako partaideak lotzen dituen kalitatezko musika egitaraua osatuz», Amador Mayo antolakuntza batzordeko kideak azaldu zue-

nez. «Nolabait Tirri Tarrak Tirri Tarrari eginiko omenaldia da», gaineratu zuen.

Proisako egoitza berriaren inaugurazioak zabalduko du ospakizun astea bihar 18:30etan. Han egingo dira hurrengo asteko ekitaldi guztiak. Astelehenean, *Tirri Tarra, 25 urte* bideo emanaldia eta Quinteto Solozabalen kontzertua izango dira. As-teartean, Trio 4 eta Brass Band taldeak ariko dira. Asteazke-

nean, Josetxo Silgueiro saxofoi jolearen Aizebeltz taldeak joko du. Ostegunean, Ilunbe Ganbara Orkestrak eta Jose-txo Goia-Arriben eta Pello Ramirez jazz bikoteak joko dute. Ostiralean, hiru kontzertu izango dira: Burdinezko Bola taldea, Roberto Yaben Laukotea, eta Ipurtargi eta talde sorpresa.

Ospakizunen egun nagusia hilaren 19an izango da. Larunbat goizetik

igandeko egunsentira arte iraungo du festak: txaranga desfileak, luntxak, Ondartxo Abesbatzaren emanaldia, Tirri Tarraren *Re + Fa* disko berriaren zuzeneko aurkezpena, Mango Melao *salsa* taldea eta guatekea izango dira.

Horrez gain, aste osoan zehar argazki eta jantzi zaharren erakusketa egongo da Proisako egoitzan. Ekitaldi guztiak arratsean izango dira.